

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA**

Osasun Sailburuordetza
Osasun Plangintzaeta
Antolamenduko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO**

Viceconsejería de Sanidad
Dirección de Planificación y
Ordenación Sanitaria

OSPITALEKO ALTEN ERREGISTROKO TXOSTENA

EAE 2008

Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzua
Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza
OSASUN SAILA

SARRERA ETA METODOLOGIA

Jarraian aurkezten den txostena 2008. urteko Ospitaleko Alten Erregistroari (OAE) dagokio, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ospitaleetan artatutako gaixotasunei buruzko informazioa eskaintzen du. Datuok, urte bereko azaroko 303/1992 Dekretuak sortutako¹ Gutxieneko Oinarrizko Datu Multzotik (GODM) hartu dira.

EAEko GODM delakoa datu-base kliniko-administratibo bat da, zentro sanitario guztien (publikoen zein pribatuen) ospitaleko gertakarien altaren informazioa homogeneoki biltzen duena. Aipatutako zentroen artean ez dira atentzio psikiatrikoko zentroak sartzen.

Definizio interesgarriak:

Ospitaleko alta: aldez aurretik ingresatuta egonik, ospitalean esleituta zeukan ohea uzten duen pazientea. Paziente batek urtean alta ezberdinak sor ditzake.

Egonaldi gabeko alta: egun bat baino gutxiagoko egonaldiarekin ospitalean artatu eta bere atentzioak alta-txosten bat sortzen duen pazientea.

Pertsona edo pazientea: berau kalkulatzeko hauxe izan da kontuan hartu dena: ospitale bakoitzean ez egotea historia kliniko, jaiotegun eta sexu zenbaki berbera.

Diagnostiko nagusia: azterketa egokia egin ondoren eta aukerako irizpidearen arabera, pazientea ospitale batean ingresatzeko arrazoi nagusizat hartzen den prozesu patologikoa. Txosten honetan aurkezten diren datuak diagnostiko honetan oinarritzen dira.

Prozedura kirurgikoa eta obstetrikoa: operazio-gela edota erditze-gela erabili diren prozedura guztiak.

Diagnostikoak eta prozedurak, "Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, 9. berrikuspena, Aldaketa Klinikoa" (CIE-9MC)² delakoaren arabera kodetu dira.

Egonaldia: honako aldagai hauen artean dagoen aldea: altako data eta onarpen-data, egunetan neurtua.

Datu horien analisia deskriptiboa da eta diagnostiko eta prozedura nagusiei baino ez die erreferentzia egiten. Analisia ospitale publiko eta pribatuetan egin da, ospitale-mota (akutuentzako ospitalea eta egonaldi ertain eta luzekoa, ospitale publikoen kasuan), sexua eta adina (15 urteko zazpi tartetan taldekatuta) kontuan hartuta.

100.000 biztanleko ospitalizazio-tasa gordina kalkulatu da eta alden kopurua zenbakitzailean jarri da. Tasa horiek kalkulatzeko izendatzailean erabili den biztanleria Euskal Estatistika Erakundea/EUSTAT delakoan agertzen den biztanleria izan da, eta proiektzio baten bitartez egin da³.

Gainera, egonaldi ertaina kalkulatu da, hau da, batez beste pazienteak ingratuta egon diren egunak, egonaldi-kopuruaren eta alden kopuruaren arteko zatidura eginez.

Datuen kalitatea, eremu guztietarako nahitaezkoa den aldagaien betetze-mailaren bitartez neurtu da. Aurten, Osakidetzako zentro guztietako alta guztietan informazioa lortu da aldagai guztietarako, jaioberriaren pisua izan ezik (1. taula). Aurreko urteei dagokienez, OTI alde batera utzi da, aldatzen ari den aldagai bat delako, baita bizilekua ere, erregistro hori Basurtuko Ospitaleko alden 15etan baino falta ez delarik.

Ospitale pribatuetan, nahitaezkoak diren aldagai batzuk ez dira behar bezala bete; zehazki esateko, honako hauek izan dira: jaioteguna, sexua, egoitza-probintzia, diagnostiko nagusia eta prozedura.

Aldagairen bat bete gabe zituzten altak, ez dira sartu aldagai horri zegokion analisisian.

Datuak aztertzean, lehenengo eta behin EAEn izandako alta guztien deskripzio bat egingo da; eta ondoren, zehatzago, egoiliar eta ez-egoiliarren altak aztertuko dira. Ospitale publikoetan, bereiz aztertzen dira akutuentzako ospitaleak eta egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak. Azkenik, ospitale pribatuen datuak aztertu dira, diagnostiko-taldeak eta egonaldia kontuan hartuta.

E MAITZAK

Hauxe izan zen, 2008. urtean zehar, EAEko ospitale publiko eta pribatuetan gertatutako alden kopurua, guztira: 328.275.

Osakidetzaren sare publikoko ospitaleko alden kopurua, guztira, 242.371koa izan da, aurreko urtekoa baino handiagoa. Alta horietatik 233.790 (%96,5), akutuentzako ospitaletakoak izan dira eta 8.581 (%3,5), egonaldi ertain eta luzeko ospitaletakoak. Ospitalea eta sexua kontuan hartuta egindako deskripzioa 2. taulan ikus daiteke.

Akutuentzako ospitale publikoak

Akutuentzako ospitale publikoetan gertatutako altetatik, 228.947 EAEn bizi diren pertsonenak izan dira; eta 4.843 (%2,1), ez-egoiliarrek eta atzerritarrek izan dira. Proporzio hori, halaber, beste urte batzuetakoaren antzekoa izan da.

3. taulan ikus daitezke ospitale horietara joan diren EAEko egoiliarrei buruzko daturik garrantzitsuenak. Pertsonako alden kopurua (1,3) aurreko urtekoaren parekoa da, eta oso antzekoa izan da gizonezkoetan eta emakumezkoetan (1,4 eta 1,3 hurrenez hurren). Batez besteko adina, dena dela, gizonezkoen kasuan (57,8 urte) emakumezkoen kasuan (55,2 urte) baino zertxobait altuagoa izan da. Hauxe da ospitalizazio-tasa gordina: 100.000 biztanleko 10.658,4, zertxobait altuagoa Araban eta baxuagoa Bizkaian. Emakumezkoen ospitalizazio-tasa gordinak, gainera, pixka bat altuagoak dira hiru lurraldeetan.

4. taulan, halaber, egoiliarren alden kopuruaren banaketa ageri da adin-taldea, egoitza duten lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta. Erreparatzen da, gizonezkoen kasuan alden kopuru handiena 60 urtetik 74 urtera arteko taldean gertatzen dela; emakumezkoetan, berriz, bi gailur daude, bat 30 urtetik 44 urtera arteko adin-taldean (emakumezkoen adin emankorra, non diagnostikorik sarriena haurdunaldi, erditze eta erditze ondoko taldeari dagokion), eta bestea

75 urtetik 89 urtera artekoan. Hori hiru lurralde historikoetan gertatzen da.

5. taulan altak aurkezten dira alta ematerakoan diagnostiko-taldea, lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta. Gizonezkoen kasuan, Bizkaian eta Gipuzkoan zirkulazio-aparatuko gaixotasunek lehenengo postua hartzen dute (%15,6 eta %14,7 hurrenez hurren); eta arnas aparatuko gaixotasunak dira Araban lehenengo postuan daudenak (%14,7). Oro har, EAEko gizonezkoetan zirkulazio-aparatuko gaixotasunek lehenengo postua hartzen dute (%14,8), jarraian digestio-aparatuko gaixotasunak ageri dira bigarren postuan (%14) eta arnas aparatuko gaixotasunak hirugarren (%13,2). EAEko emakumezkoen kasuan eta hiru lurraldeetan eredia berdina da, lehenengo arrazoia haurdunaldi, erditze eta erditze ondoko taldeari dagokio (%18 Araban, %19,6 Gipuzkoan eta %18,7 Bizkaian); jarraian, nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunak datoz (%11,3 Araban, %12,7 Gipuzkoan eta %13,4 Bizkaian), eta hirugarren arrazoi gisa zirkulazio-sistemako gaixotasunak ageri dira (%9,6 Araban, %9,8 Gipuzkoan eta %9,5 Bizkaian).

6. taulan sarrien gertatzen diren bost diagnostikoak aurkezten dira hiru digituren arabera kodetuta, adin-taldea eta sexua kontuan hartuta. 14 urtera arte, arrazoi nagusiak antzekoak dira bi sexuetan, amigdala eta adenoideen gaixotasun kronikoa sarrien gertatzen den diagnostikoa izanik (%8,6 mutikoengan eta %8,8 neskatoengan). Baina 15 urtetik 44 urtera arteko emakumezkoetan, sarrien eman diren bost diagnostikoak haurdunaldi, erditze eta erditze ondoko taldearen barruan aurkitzen dira. Bestalde, katarata da 60 eta 89 urte artekoengan, sexu bietan, sarrien gertatzen den diagnostikoa, eta aldea proportzioan agertzen da, emakumezkoengan gizonezkoengan baino altuagoa baita beti.

Osakidetzako akutuentzako ospitaleetan atenditutako **ez-egoiliarrei** dagokienez, eta horien egoitza non dagoen aztertu ondoren, ikus daiteke kasuen %85,7 Burgos (%31), Kantabria (%27), Nafarroa (%22,7) eta Errioxatik (%5) datozela. Eta %3,1 atzeritarrak dira.

7. taulan **ez-egoiliarren** alden kopuruaren banaketa ageri da, adin-taldea eta sexua kontuan hartuta; eta ikus daiteke 30 urtetik 44 urtera eta 60tik 74 urtera arteko adin-taldeetan alden kopururik handiena biltzen dela. 8. taulan ez-egoiliarrentzako altak aurkezten

dira, alta ematerakoan diagnostiko-taldea eta sexua kontuan hartuta. EAEn bizi ez diren gizonezkoen kasuan, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak dira, egoiliarren kasuan bezala, lehenengo postuan agertzen direnak (%15,4); ondoren, digestio-aparatuko gaixotasunak (%12,4) datoz; eta hirugarren tokian lesioak eta pozoidurak (%12). Emakumezkoetan lehenengo arrazoia haurdunaldi, erditze eta erditze ondoko taldeari dagokio (%22,6), EAEn bizi direnekin gertatzen den bezala; ondoren tumoreak (%12,1), eta hirugarren postuan nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunak daude (%9,6).

1. *Egonaldirik gabeko altak:*

Eguneko ospitaleei dagozkien altak dira. Guztira, **46.538** alta erregistratu dira. Alta horiek 39.485 pertsoneri dagozkie: 45.733 egoiliar (%98,3), eta 805 ez-egoiliar (%1,7). Alta guztietatik, %43,8 gizonezkoak dira eta %56,2 emakumezkoak. Alta horiek, Osakidetza akutuentzako ospitaleetako alta guztien %19,9 dira eta ospitale bakoitzean proportzio desberdinak adierazten dituzte, honako hauek direlarik maiztasun handiena izan dutenak: San Eloy (%30,4) eta Bidasoako Eskualdeko Ospitalea (%29,5). Maiztasun baxuenak, berriz, Santiago Ospitaleak (%15,9) eta Basurtu eta Donostia ospitaleek (%16,9 bakoitzak) izan dute. Guztizkoa kontuan hartuta, alden kopururik handiena Gurutzetako Ospitaleak jakinarazi du (9. taula).

EAEn bizi direnen artean sarrien eman diren hamabost diagnostikoei, sexu bietarako, egonaldirik egin ez duten alta guztien %60 adierazten dute; eta lurralde historikoaren arabera haien banaketa 10. taulan ikus daiteke. Katarata da sarrien eman den diagnostikoa (%36,2), 74,5 urteko batez besteko adina dutenen artean.

10a taulan ikus daitezke EAeko egoiliarren artean, sexuaren arabera, sarrien gertatutako hamabost prozedura kirurgikoak zeintzuk diren. Hauxe izan da, prozedura guztiak kontuan hartuta, gizonezkoengan (%40,2) zein emakumezkoengan (%42,6) sarrien eman den prozedura: "kristalinoaren gaineko ebakuntzak". Bi kasuetan, batez besteko adin altuenarekin (73,1 urte gizonezkoen kasuan eta 75,3 urte emakumezkoetan) bat dator.

11. taulan ikus daiteke EAEn **bizi ez direnen** artean, sexu bietarako, sarrien emandako hamabost diagnostikoei zeintzuk

izan diren; eta horrek, ez-egoiliarrek egonaldirik egin gabe hartutako alta guztien %51,6 adierazten du. Sarrien gertatu diren 15 diagnostiko horietatik, 9 bat datoz egoiliarren kasuan sarrien eman direnekin, maiztasun-ordena kontuan hartzen bada aldaketaren bat egon arren. Baina egoiliarrekin gertatzen den bezala, ez-egoiliarren artean sarrien gertatu den diagnostikoa katarata izan da (%18,1), 73,4 urteko batez besteko adina dutenen artean.

11a taulan, ikus daiteke EAEn **bizi ez direnen** artean, sexua kontuan hartuta, sarrien emandako hamabost prozedura kirurgikoak zeintzuk izan diren. Egoiliarren kasuan gertatzen den bezala, hauxe izan da, prozedura guztiekiko, sarrien eman dena: "kristalinoaren gaineko ebakuntzak", bai gizonezkoengan (%22,1), bai emakumezkoengan (%21,7). Gainera, bat etorri da batez besteko adin altuenetako batekin gizonezkoen kasuan (72,7 urte), eta batez besteko adin altuenetakoarekin emakumezkoengan (72,9 urte).

2. *Zerotik gorakoa den egonaldia izan duten altak:*

12. taulan ikus daiteke Osakidetzako ospitale publikoek, zerotik gorako egonaldia izan duten **187.252** alta jakinarazi dituztela. Alta horiek 147.891 pertsonak egin dituzte (pertsonako 1,3 alta), eta 183.214 alta egoiliarrei dagozkie eta 4.038 (%2,2) ez-egoiliarrei. Sexuaren arabera, %51,3 emakumezkoak dira eta %48,7 gizonezkoak.

Egoiliarren artean, onarpenaren inguruabarra urgentzia izan zen alten %70,4an, emakumezkoen artean (%72,9) gizonezkoengan (%67,8) baino zertxobait altuagoa; eta gehienak (%90,6) haien ohiko bizilekura itzuli ziren alta jaso zuten momentuan. %3,5 ospitalean zegoela hil egin zen.

Emakumezkoen kasuan, alta gehien jakinarazi duen zerbitzua toko-ginekologiakoa izan da (%24,3); ondoren, barne-medikuntzakoa (%11,3) eta traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzua (%10,3). Gizonezkoen kasuan, kirurgia orokorreko zerbitzuak eta barne-medikuntzakoak ospitaleratzeen %25,8 sortu dute; eta ondoren, kardiologiako zerbitzua dator %9,7ko tasarekin (13. taula).

EAE n bizi ziren gizonen artean, zerotik gorako egonaldia izan duten alden banaketa, adin-taldeak kontuan hartuta, dagoeneko 4. taulan aipatu den berdina da: gizonen kasuan alden kopururik handiena 60 eta 74 urte artean batzen da, baina emakumezkoetan 30etik 44 urtera eta 75 urtetik 89 urtera arteko adin-taldeetan nabaria da. Egonaldiari dagokionez, ohartu gara gizonen kasuan emakumezkoen baino egonaldi luzeagoak egiten dituztela 15 urtetik 74 urtera bitartean; eta neskaen (<14 urte) eta emakume helduei (>75 urte) egonaldiak altuenak egokitu zaizkie. Datu horiek antzekoak dira bizilekua zein lurralde historikotan dagoen eta sexua kontuan hartzen badira, eta 14. taulan ikus daitezke.

Alta horiek diagnostiko-taldea, lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta aztertzen direnean (15. taula), ikus daiteke gizonen kasuan eta Araban lehenengo bi arrazoiak arnas aparatuko gaixotasunei eta digestio-aparatuko gaixotasunei (%16,4 eta %16 hurrenez hurren) dagozkienak direla, eta hirugarren zirkulazio-sistemako gaixotasunak (%14,5) ageri direla. Bestalde, gizonen kasuan Gipuzkoan eta Bizkaian lehen hiru arrazoiak berdinak dira, baina ordena desberdina da. Emakumezkoetan lehenengo arrazoiak, hiru lurraldeetan, haurdunaldi, erditze eta erditze ondoko taldeari dagokio; eta bigarren arrazoiak zirkulazio-sistemako gaixotasunak dira, hirugarren postuan digestio-aparatuko gaixotasunak daudelarik.

16. taulan aurkezten dira sexuaren arabera sarrien agertzen diren hamabost diagnostikoak, hiru digitutan kodetuta. Diagnostiko horiek, EAEko egoiliarren artean zerotik gorako egonaldia izan duten alden laurdena baino zertxobait gehiago adierazten dute. Gizonen artean batez besteko adin altuena diagnostiko hauetan bihotz-gutxiegitasunari dagokio (75,1 urte), batez besteko egonaldi altuena baitu (8,5 egun), baita bronkitis kronikoa ere (73,5 urte). Emakumezkoen kasuan 82,6 urtekoa da batez besteko adin altuena, eta izterrezurraren lepoko hausturari dagokio, batez besteko egonaldi altuena baitu (14 egun); eta ondoren, bihotz-gutxiegitasuna dator (79,9 urte).

17. taulan ikus daitezke, EAEko biztanleen artean, sexuaren arabera sarrien ematen diren hamabost prozedura kirurgikoak. Gizonen kasuan sarrien gertatzen den prozedura "herniaren konponketa" da (%8,6), eta emakumezkoetan "erditzea eragiteko edo erditzean laguntzeko bestelako prozedurak" (%27,7). Gizonen kasuan batez besteko adin altuena (69,1 urte), "bihotz eta perikardioaren gaineko bestelako ebakuntzak"

delakoari (CIE-9-MC "37") dagokio, eta "45" prozeduraren ("hestearen ebakidura, zatiketa eta anastomosis") batez besteko egonaldia altuena da (16,3 egun). Emakumezkoetan batez besteko adinik altuena (69,8 urte), "artikulazio-egituraren operazio konpontzaile eta plastikoak" prozedurari dagokio, eta gizonezkoen kasuan bezala, "45" prozeduraren ("hestearen ebakidura, zatiketa eta anastomosis") batez besteko egonaldia altuena da (16,6 egun).

17a taulan aurkezten dira, EAeko **ez-egoiliarren** artean, sexuaren arabera sarrien ematen diren hamabost prozedura kirurgikoak. Prozedurok, EAEn bizi direnen prozedura sarrienekin bat datoz, nahiz eta maiztasun-ordenean aldaketak egon.

Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

Amarako Ospitalea, Donostia Ospitaletegiaren zati da, baina iraupen luzeko gaixotasunen ospitalizazioaz arduratzen delako, atal honetan sartu da.

Guztira, 8.581 alta gertatu dira egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan, eta ospitale publikoen alden guztizkoaren %3,5ari dagozkie. Alta horietatik 8.463 dira EAEn bizi direnei dagozkienak, eta 118 ez-egoiliarrenak dira. Alta horiek, guztira, 152.177 egonaldi-egun sortu dituzte (batez beste 17,7 egonaldi-egun alta bakoitzeko, sexu bietan). Alta horiek, 6.533 pertsoneri dagozkie (1,3 alta pertsonako eta batez besteko egonaldiko 23,3 egun pertsona bakoitzeko, sexu bientzat). Santa Marina Ospitalea izan da alden %62ren berri eman duena, eta Lezako Ospitalea izan da batez besteko egonaldirik altuena izan duena. Azken honetan, haxe izan da sarrien emandako diagnostikoa: "errehabilitazioko prozeduren erabilera dakarten zainketak" (V57 kodea), aipatutako ospitalean alta ematerakoan diagnostiko guztien %34,3 adierazten baitu (18. taula).

Emakumezkoen batez besteko adina gizonezkoena baino altuagoa da (80,8 urte emakumezkoak eta 75,8 urte gizonezkoak). Bizkaia izan da batez besteko adinik altuena izan duen lurraldea (81,3 urte emakumezkoen kasuan eta 76,6 urte gizonezkoen kasuan). Araban bizi direnek batez besteko egonaldirik altuena izan dute: 38,7 egun emakumezkoetan eta 31,4 egun gizonezkoetan (19. taula).

20. taulan, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan, EAEn bizi direnen artean sarrien eman diren diagnostikoak ageri dira. Haien maiztasuna kontuan hartuta, nabarmenak dira "errehabilitazioa dakarten zainketak" emakumezkoetan (%23,1), eta "bronkitis kronikoa" gizonezkoetan (%22,1).

Ospitale pribatuak

Hauxe izan zen, guztira, 2008. urtean zentro pribatuetan gertatutako alden kopurua: 85.424, beste modu batera esanda, EAEko alta guztien %26. Zentro ezberdinetako alden banaketa 21. taulan aurkezten da, sexu bakoitza kontuan hartuta. Bilboko Vicente San Sebastian Klinika eta Donostiako Poliklinika Gipuzkoa izan dira, alden kopururik handiena eragin dutenak. San José Poliklinika eta Guimón Klinikatik alden kopurua zenbatu den arren, ez dira sartu talde diagnostikoen arabera sailkatutako alden analisian, datu horien kalitateak ez baitu aukerarik eman. Beraz, deskripzio hau 77.103 altetan oinarritzen da, horiek baitira altak guztira, eta lehen aipatutako zentroei dagozkien 8.321 altak alde batera utzi dira.

Zerotik gorako egonaldia izan duten altak, zentro horietan alta guztien %60,5 eragin dute. Zerotik gorako egonaldia izan duten alden kopururik handiena 60tik 74 urtera arteko adin-taldean gertatu da gizonezkoetan, eta 30etik 44 urtera artekoan emakumezkoetan. Lurralde historikoaren eta sexuaren araberrako banaketa 22. taulan aurkezten da. Zerotik gorako egonaldia izan duten alden batez besteko egonaldia, sexu bietarako, 6 egunekoa izan da; baina emakumezkoetan (7,7 egun) gizonezkoetan (5,9 egun) baino altuagoa izan da.

EAEko zentro pribatuetan, sistema osteomuskularreko gaixotasunak dira sarrien gertatzen direnak (%16,6); ondoren, zirkulazio-sistemako gaixotasunak ageri dira (%12,7); eta hirugarren, digestio-aparatukoak (%10,9) daude. Lurralde bakoitzean sexuaren araberrako banaketa 23. taulan ikus daiteke.

Egonaldirik gabeko altek, edo eguneko ospitaleko altek, gora egin dute (33.704), ospitale pribatuetako alta guztien %39,5, hain zuzen ere. Eta sarriago gertatzen dira, guztira alden kopururik handiena dagoela nabaritzen den zentroetan (24. taula).

Aurten, lehenbiziko aldiz, alta ematean heriotza adierazi duten alden datuak aztertu dira, ospitale publiko zein pribatu guztien altak kontuan hartuta (25. taula). Portzentajerik altuena, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleei dagokie (%17).

26. taulan ikus daiteke, sexu bakoitzerako Osasun Planean sartutako patologia batzuek eraginda, EAEko ospitaleetan gertatutako alden banaketa.

O

HARRAK

2008. urteko Ospitaleko Alten Erregistroko txosten honetan ikus daiteke ospitale publikoetan, akutuentzakoetan zein egonaldi ertain eta luzekoetan, alden kopuruak gora egin duela beste urte batzuekin alderatuta⁴. Akutuentzako ospitaleetan, igoera hori adin-talde guztietan eta bi sexuetan gertatu da, 15 urtetik 29 urtera arteko gizonezkoen kasuan izan ezik, alden kopuruak behera egin baitu.

Alten kopurua kontuan hartzen denean gogoratu behar da, batzuetan, prozesu berak alta bat eman dezakeela ospitale bi edo gehiagotan, ez dagoelako paziente bakoitzeko historia bakar bat. Aurten, pertsonako alden kopurua aurreko urtekoa bezalakoa izan da.

Ospitale publikoetan ospitaleratze eta alta horiek eragin dituzten patologiak ez dira funtsean aldatu, bi sexuetan nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako prozesuek eragindako alden kopuruak gora egin duela nabaritzen den arren.

Osakidetzako akutuentzako ospitaleetan ez-egoiliarrek izandako alden ezaugarriak, EAEn bizi direnen antzekoak dira, sarrien ematen diren diagnostiko nagusiak kontuan hartzen badira; nahiz eta alden portzentajea handiagoa izan ez-egoiliarren diren emakumeen artean "tumoreak" eta "haurdunaldia, erditzea eta erditze ondokoa" talde diagnostikoan; eta ez-egoiliarren diren gizonezkoetan "lesioak eta pozoidurak" talde diagnostikoan. Altak adin-taldearen arabera banatzen direnean, ikus daiteke ez-egoiliarrek EAEko egoiliarrek baino alden kopuru handiagoa daukatela adin-talde gazteenetan, bi sexuetan.

Emakumezkoen kasuan, 630-676 talde diagnostikoa (“haurdunaldia, erditzea eta erditze ondokoa”) sarriena da; eta talde horretako diagnostikoak dira, Osakidetzako akutuentzako ospitaleetako emakume egoiliarren alta guztien artean, 15 eta 44 urte artean, sarrien agertzen diren 5 diagnostikoak.

Aurten, lehenbiziko aldiz, altak prozedura kirurgikoa eta sexua kontuan hartuta zehazki aztertu dira, EAEn bizi direnentzat, egonaldirik izan ez duten altentzat; eta lehenengo postua, bi sexuetan, kristalinoaren gaineko ebakuntzen prozedurak hartu du, EAEn bizi direnen artean egonaldirik gabeko altentzako sarrien gertatu den katarata diagnostikoarekin bat datorrena.

Esan beharra dago, halaber, zentro pribatuek bidalitako alten kopuru osoaiazkoa baino altuagoa dela. Hala ere, kontuan hartu behar da datuen kalitateak, oro har, hobera egin duela; baina ikus daiteke garrantzitsuak diren aldagai batzuk (altako diagnostikoa, esaterako) falta direla zenbait zentrotan; eta horrek, atenditutako patologien benetako egoera eta garrantzia zein den zehaztasunez ezagutzea galarazten du.

Aurreko txostenetan bezala, Osasun Planean⁵ sartuta dauden patologietan EAEn gertatu diren alten kopurua zehaztu da.

Aurten, lehenbizikoz, alta ematean heriotza adierazi duten alten datuak aztertu dira, ospitale publiko zein pribatu guztien altak kontuan hartuta. Portzentajerik handiena, egonaldi ertain eta luzeko ospitalei dagokie (%17).

BIBLIOGRAFIA

1. Manual Técnico del registro CMBD del alta hospitalaria de Euskadi, 2. bertsioa.
2. Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, 9. berrikuspena. Aldaketa Klinikoa, 6. argitalpena. Osasun eta Kontsumo Ministerioa.
3. www.eustat.es/bancopx
4. Ospitaleko Alten Erregistroko Txostena 2007.
www.osasun.ejgv.euskadi.net
5. Osasun Saila. Euskadirako Osasun Politikak: 2002-2010 Osasun Plana. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua, 2002.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA**

Osasun Sailburuordetza
Osasun Plangintzaeta
Antolamenduko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO**

Viceconsejería de Sanidad
Dirección de Planificación y
Ordenación Sanitaria

TAULAK

**1. taula: Bete gabeko alten eta aldagaien kopurua.
EAE 2008**

Ospitalea	<u>Alta-kop.</u>	<u>Prozedura duten alta-kop.</u>	<u>Diag0 Nag0*</u>	<u>JB Pisua[#]</u>	<u>X Diag0***</u>	<u>X Proz****</u>
Santiago	13.280	8.184	0	0	2,7	1,8
Txagorritxu	24.012	17.844	0	7	3,7	1,8
Bidasoa	7.514	4.350	0	0	3,3	1,3
Debagoiena	5.156	3.066	0	10	2,3	1,3
Donostia	51.592	35.333	0	0	4,2	1,9
Zumarraga	8.562	4.915	0	105	3,0	1,1
Mendaro	7.347	4.356	0	3	4,3	1,4
Gurutzeta	50.022	44.569	0	9	3,5	2,1
San Eloy	7.385	4.802	0	0	2,3	1,5
Basurtu	36.728	27.763	0	118	4	1,8
Galdakao	22.192	18.563	0	0	3,3	2,5
Akutuak guztira	233.790	173.745	0	252	3,6	1,9
Leza	306	0	0	0	2,5	0
Amara	883	553	0	0	8,4	1,6
Santa Marina	5.316	2.479	0	0	7,8	1,7
Gorliz	2.076	1.315	0	0	5	2,7
Egonalde ertain-luzeak guztira	8.581	4.347	0	0	7	2
Alta guztiak	242.371	178.092	0	252	3,7	1,9

Diag0 Nag0* = Diagnostiko Nagusia.

JB Pisua[#] = Jaioberriaren pisua.

X Diag0*** = Alta bakoitzeko egindako diagnostikoen batez bestekoa.

X Proz**** = Prozeduraren batekin alta bakoitzeko egindako prozeduren batez bestekoa.

Iturria: Ospitaleko alten erregistroa (GODM). Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

2. taula: Alten kopurua, zentro-mota eta sexua kontuan hartuta.

Akuentzako ospitaleak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Santiago	7.266	6.014	13.280
Txagorritxu	11.150	12.862	24.012
Bidasoa	3.881	3.633	7.514
Debagoiena	2.230	2.926	5.156
Donostia	24.299	27.293	51.592
Zumarraga	3.896	4.666	8.562
Mendaro	3.359	3.988	7.347
Gurutzeta	22.307	27.715	50.022
San Eloy	3.779	3.606	7.385
Basurtu	17.637	19.091	36.728
Galdakao	11.702	10.490	22.192
Akutuak guztira	111.506	122.284	233.790
Egonaldi ertain-luzeko ospitaleak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Leza	193	113	306
Amara	475	408	883
Santa Marina	2.667	2.649	5.316
Gorliz	883	1.193	2.076
Egonaldi ertain-luzeak guztira	4.218	4.363	8.581
GUZTIRA	115.724	126.647	242.371

Iturria: Ospitaleko alden erregistroa (GODM). Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

3. taula: Altak guztira, *Osakidetzako akutuentzako ospitaleetan* , lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta.

EAE n bizi direnak 2008

	Guztira				Gizonezkoak				Emakumezkoak			
	Alta-kop.	Altak / pertsona	Batez besteko adina	Tasa*	Alta-kop.	Altak / pertsona	Batez besteko adina	Tasa*	Alta-kop.	Altak / pertsona	Batez besteko adina	Tasa*
Araba	38.622	1,3	56,1	12.315,8	18.958	1,4	57,2	12.122,9	19.664	1,3	55,1	12.507,7
Gipuzkoa	78.341	1,3	56,7	11.322,6	36.840	1,4	58,2	10.847,7	41.501	1,3	55,4	11.780,4
Bizkaia	111.984	1,3	56,4	9.801,2	53.232	1,3	57,8	9.630,6	58.752	1,2	55,2	9.961
EAE	228.947	1,3	56,5	10.658,4	109.030	1,4	57,8	10.396,4	119.917	1,3	55,2	10.908,3

*Tasa gordina 100.000 biztanleko.

Iturria: Ospitaleko alden erregistroa (GODM). Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

4. taula: Altak guztira, *Osakidetzako akutuentzako ospitaleetan* , adina, lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta. *EAE n bizi direnak 2008*

Adina	EAE				Araba				Gipuzkoa				Bizkaia			
	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Gizonezkoak		Emakumezkoak		Gizonezkoak		Emakumezkoak		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
0-14	7.932	7,3	5.632	4,7	1.336	7	999	5,1	2.735	7,4	1.981	4,8	3.861	7,3	2.652	4,5
15-29	5.974	5,5	10.737	9	1.210	6,4	1.843	9,4	1.951	5,3	3.650	8,8	2.813	5,3	5.244	8,9
30-44	12.685	11,6	28.926	24,1	2.446	12,9	4.605	23,4	4.092	11,1	10.210	24,6	6.147	11,5	14.111	24
45-59	20.619	18,9	16.237	13,5	3.568	18,8	2.825	14,4	6.827	18,5	5.335	12,9	10.224	19,2	8.077	13,7
60-74	31.959	29,3	23.778	19,8	5.392	28,4	3.749	19,1	10.797	29,3	8.031	19,4	15.770	29,6	11.998	20,4
75-89	28.394	26	31.030	25,9	4.656	24,6	4.900	24,9	9.848	26,7	10.859	26,2	13.890	26,1	15.271	26
≥ 90	1.467	1,3	3.577	3	350	1,8	743	3,8	590	1,6	1.435	3,5	527	1	1.399	2,4
GUZTIRA	109.030	100	119.917	100	18.958	100	19.664	100	36.840	100	41.501	100	53.232	100	58.752	100

Iturria: Ospitaleko alden erregistroa (GODM). Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

5. taula: Altak guztira, *Osakidetzako akutuentzako ospitaleetan*, talde diagnostikoa, lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta.

EAE n bizi direnak 2008

CIE9-MC	Diagnostiko Taldea	EAE				Araba				Gipuzkoa				Bizkaia			
		Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak	
		K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
001-139	Infekziosoak eta parasitarioak	1.707	1,6	1.189	1	315	1,7	204	1	630	1,7	399	1	762	1,4	586	1
140-239	Tumoreak	10.880	10	9.465	7,9	1.699	9	1.545	7,9	3.420	9,3	2.872	6,9	5.761	10,8	5.048	8,6
240-279	Endokrino metabolikoak	1.437	1,3	1.890	1,6	285	1,5	352	1,8	545	1,5	682	1,6	607	1,1	856	1,5
280-289	Odola eta organo hematopoietikoak	1.202	1,1	1.336	1,1	210	1,1	269	1,4	453	1,2	456	1,1	539	1	611	1
290-319	Trastorno mentalk	2.716	2,5	2.374	2	466	2,5	371	1,9	812	2,2	758	1,8	1.438	2,7	1.245	2,1
320-389	Nerbio-sistema eta zentzumen-organak	11.525	10,6	15.340	12,8	1.741	9,2	2.215	11,3	3.970	10,8	5.253	12,7	5.814	10,9	7.872	13,4
390-459	Zirkulazio-sistema	16.128	14,8	11.533	9,6	2.430	12,8	1.893	9,6	5.419	14,7	4.086	9,8	8.279	15,6	5.554	9,5
460-519	Arnas aparatua	14.347	13,2	9.586	8	2.793	14,7	1.740	8,8	5.239	14,2	3.688	8,9	6.315	11,9	4.158	7,1
520-579	Digestio-aparatua	15.249	14	10.957	9,1	2.747	14,5	1.748	8,9	4.918	13,3	3.760	9,1	7.584	14,2	5.449	9,3
580-629	Aparatu geniturinarioa	5.874	5,4	8.141	6,8	1.319	7	1.395	7,1	1.867	5,1	2.614	6,3	2.688	5	4.132	7
630-676	Haurdunaldi, erditze eta erditze ondokoa	0	0	22.660	18,9	0	0	3.538	18	0	0	8.150	19,6	0	0	10.972	18,7
680-709	Larruzala eta larruzalpeko ehuna	1.448	1,3	1.080	0,9	227	1,2	154	0,8	580	1,6	440	1,1	641	1,2	486	0,8
710-739	Sistema osteomuskularra	6.506	6	7.738	6,5	1.064	5,6	1.252	6,4	2.350	6,4	2.845	6,9	3.092	5,8	3.641	6,2
740-759	Sortzetiko anomaliak	1.043	1	617	0,5	136	0,7	115	0,6	310	0,8	165	0,4	597	1,1	337	0,6
760-779	Jaiotza-inguruko patologia	1.135	1	897	0,7	234	1,2	157	0,8	414	1,1	363	0,9	487	0,9	377	0,6
780-799	Gaizki definitutako zeinu eta sintomak	6.525	6	5.283	4,4	1.254	6,6	1.012	5,1	2.164	5,9	1.774	4,3	3.107	5,8	2.497	4,3
800-999	Lesioak eta pozoidurak	8.357	7,7	7.339	6,1	1.439	7,6	1.208	6,1	2.690	7,3	2.269	5,5	4.228	7,9	3.862	6,6
V01-V82	V kodea	2.951	2,7	2.492	2,1	599	3,2	496	2,5	1.059	2,9	927	2,2	1.293	2,4	1.069	1,8
	Kodetu gabe	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	GUZTIRA	109.030	100	119.917	100	18.958	100	19.664	100	36.840	100	41.501	100	53.232	100	58.752	100

6. taula: Altak guztira, Osakidetzako akutuentzako ospitaleetan, sarrien ematen diren diagnostikoak, adina eta sexuaren arabera. EAEn bizi direna 2008

Gizonezkoak						Emakumezkoak					
Adina	CIE9-MC	Arrazioa	K	%*	Guztira	Adina	CIE9-MC	Arrazioa	K	%	Guztira
0-14	474	Amigdala eta adenoideen gaixotasun kronikoa	683	8,6	7.932	0-14	474	Amigdala eta adenoideen gaixotasun kronikoa	496	8,8	5.632
	540	Apendizitis akutua	317	4			765	Haurd. labor/jaiotza-pisu eskasarekin zer. trast.	252	4,5	
	752	Org. genitalen anomalia organikoak	306	3,9			466	Bronkitis eta bronkiolitis akutua	237	4,2	
	466	Bronkitis eta bronkiolitis akutua	286	3,6			540	Apendizitis akutua	204	3,6	
	765	Haurd. labor/jaiotza-pisu eskasarekin zer. trast.	283	3,6			486	Pneumonia, zehaztu gabeko organismoa	183	3,2	
	ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO							ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO			
15-29	540	Apendizitis akutua	369	6,2	5.974	15-29	650	Erditzea guztiz normala den kasuan	804	7,5	10.737
	685	Kiste pilonidala	218	3,6			645	Kronologikoki aurreratua den haurdunaldia	694	6,5	
	717	Belaun barneko trastornoa	184	3,1			664	Perineo eta bulbako trauma erditzean zehar	534	5	
	V54	Ondorengo beste zainketa ortopediko batzuk	154	2,6			656	Amarengan eragina duten best. araz. fetal eta plaz.	448	4,2	
	295	Trastorno eskizofrenikoak	152	2,5			658	Barrunbe eta mintz amniotikoen best. alt.	364	3,4	
	ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO							ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO			
30-44	717	Belaun barneko trastornoa	405	3,2	12.685	30-44	664	Perineo eta bulbako trauma erditzean zehar	1.832	6,3	28.926
	295	Trastorno eskizofrenikoak	304	2,4			645	Kronologikoki aurreratua den haurdunaldia	1.796	6,2	
	550	Iztai-etena	279	2,2			650	Erditzea guztiz normala den kasuan	1.777	6,1	
	540	Apendizitis akutua	273	2,2			656	Amarengan eragina duten best. araz. fetal eta plaz.	1.347	4,7	
	780	Sintoma orokorrak	259	2			658	Barrunbe eta mintz amniotikoen best. alt.	1.155	4	
	ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO							ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO			
45-59	550	Iztai-etena	739	3,6	20.619	45-59	174	Emakumezkoaren bularreko neoplasia gaiztoa	504	3,1	16.237
	366	Katarata	507	2,5			354	Goiko gorp. adarreko mononeuritisa eta mononeuritis anizkoitza	474	2,9	
	717	Belaun barneko trastornoa	496	2,4			574	Kolelitiasia	456	2,8	
	414	Bihotzeko gaixotasun iskemiko kronikoen best. form.	485	2,4			218	Umetokiko leiomioma	425	2,6	
	786	Arnas eta bularraldeko sintomak	467	2,3			366	Katarata	376	2,3	
	ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO							ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO			
60-74	366	Katarata	2.703	8,5	31.959	60-74	366	Katarata	3.459	14,5	23.778
	550	Iztai-etena	1.031	3,2			715	Osteoartrosia / antzeko gaix.	871	3,7	
	491	Bronkitis kronikoa	940	2,9			574	Kolelitiasia	658	2,8	
	414	Bihotzeko gaixotasun iskemiko kronikoen best. form.	801	2,5			618	Prolapso genitala	506	2,1	
	518	Biriketako bestelako gaixotasunak	709	2,2			735	Oinaren behatz lodiaeren deformazio hartua	498	2,1	
	ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO							ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO			
75-89	366	Katarata	3.413	12	28.394	75-89	366	Katarata	5.762	18,6	31.030
	491	Bronkitis kronikoa	1.299	4,6			428	Bihotz-gutxiegitasuna	1.207	3,9	
	428	Bihotz-gutxiegitasuna	1.215	4,3			820	Izterrezur lepoko haustura	897	2,9	
	518	Biriketako bestelako gaixotasunak	865	3			434	Garun-arterien buxadura	779	2,5	
	486	Pneumonia, zehaztu gabeko organismoa	758	2,7			518	Biriketako bestelako gaixotasunak	757	2,4	
	ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO							ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO			
≥ 90	428	Bihotz-gutxiegitasuna	97	6,6	1.467	≥ 90	820	Izterrezur lepoko haustura	290	8,1	3.577
	486	Pneumonia, zehaztu gabeko organismoa	80	5,5			428	Bihotz-gutxiegitasuna	266	7,4	
	519	Arnas aparatuko bestelako gaixotasunak	76	5,2			519	Arnas aparatuko bestelako gaixotasunak	192	5,4	
	366	Katarata	74	5			366	Katarata	184	5,1	
	518	Biriketako bestelako gaixotasunak	67	4,6			518	Biriketako bestelako gaixotasunak	178	5	
	ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO							ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO			

*Bere adin-talde eta sexu guztiarekiko.

Iturria: Ospitaleko alden erregistroa (GODM). Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

7. taula: Altak guztira, *Osakidetzako akutuentzako ospitaleetan*, adina eta sexua kontuan hartuta.

*EAE*n bizi ez direnak 2008

Adina	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Bi sexuak	
	K	%	K	%	K	%
0-14	286	11,6	218	9,2	504	10,4
15-29	171	6,9	257	10,9	428	8,8
30-44	371	15	689	29,1	1.060	21,9
45-59	542	21,9	318	13,4	860	17,8
60-74	584	23,6	393	16,6	977	20,2
75-89	496	20	434	18,3	930	19,2
≥ 90	26	1,1	58	2,5	84	1,7
GUZTIRA	2.476	100	2.367	100	4.843	100

Iturria: Ospitaleko alten erregistroa (GODM). Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

**8. taula: Altak guztira, Osakidetzako ospitaleetan ,
diagnostiko-taldea eta sexua kontuan hartuta. EAEn bizi ez direnak 2008**

CIE9-MC	Diagnostiko Taldea	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
		K	%	K	%
001-139	Infekziosoak eta parasitarioak	41	1,7	24	1
140-239	Tumoreak	263	10,6	286	12,1
240-279	Endokrino metabolikoak	33	1,3	30	1,3
280-289	Odola eta organo hematopoietikoak	21	0,8	17	0,7
